

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2E20 **Ez dut ondo ikusten**

Maila: A2

Helburuak: Lagunartean eta aurrez aurre galdera-erantzun errazen bidez informazio-trukea egitea elkarren berri emateko: zein bizimodu daraman, nola egiten dituen eguneroko ekintzak...


Funtzioak: Iritziak adieraztea/egiaztatzea: zerbaiti edo ekintza bati buruzko balorazio orokorra egin.


Adierazpide linguistikoak: nola galderari erantzuteko adberbioak: ondo, hobeto, gero eta okerrago...

Azken ekintza: Elkarreraginean (galdera-erantzunak) baloratu zer egiten duten lehen baino hobeto, zer okerrago: lo egin, lan egin, abestu...

1- ENTZUN AURRETIK

1.1. Ikusi-makusi


 Gaian sartzeko, norbere esperientziatik abiatuta, betaurrekoen erabilerari buruzko eta ikusmenari buruzko erantzun libreko hiru galdera dituzte erantzuteko. Galderoi aurrena bakarka erantzun diezaietela.


 Ondoren, esan binaka konparatzeko erantzunak. Galdera-erantzun elkarreragin horretan sor litekeen elkarrizketa-adibide bat ematen zaie lagungarri.

2- ENTZUN BITARTEAN


2.1. Optikakoa Josurekin eta Junerekin

Galderei bakarka erantzungo diete ikasleek lehen zatia entzun bitartean.

 **Erantzunak:** Josuk probatu ditu betaurreko berriak?: Bai. Eta okerrago ikusten du. Zer egin du optikan Josuk? / Berriz graduatu du bista.

 Ondoren, ikaskide batekin konparatuko dituzte erantzunak. Erantzunak konprobatzeko zatia berriz entzuteko egokiera eskaini.

2.2. June, Amaia eta Josu

 Audioko azken bi zatiak entzun bitartean, bakarka egitekoa. Komeni da galdetzea zerk jarri dituen erantzunaren arrastoan.

Erantzunak

Josu egun batean bi aldiz joan da optikara. EGIA

Amaiak Juneri deitu dio telefonoz. EGIA

Bigarren aldia beste betaurreko batzuk probatu ditu Josuk. GEZURRA (betaurreko berberak probatu ditu)

Optikoak datu okerrak erabili zituen. EGIA


Josuk 15 egun emango ditu betaurrekoen zain. GEZURRA (astebete inguru itxaron beharko du).

3. ENTZUN ONDOREN

3.1. Hizkuntzan arreta




Nola galderari erantzuteko: Ondo-Hobeto-Gero eta hobeto/Gaizki-Okerrago-Gero eta okerrago. Elementuok barne dituzten esaldi edo ideiak eskaintzen zaizkie ikasleei, adibide gisara, audioan azaltzen diren antzeko edo oso antzeko beste ideia batzuk badirela baliatuz. (ikus lauki urdina)



3.2. Nork esan du?

 Ideia bakoitza nork adierazia den adieraz dezatela. Aurretik esan ikasleei gerta litekeela ideiarene bat edo beste pertsonaia bati baino gehiagori atxikitu beharra. Ideia horietan 3.1 ataleko hainbat forma ageri dira.

| | Optikoak | Amaiak | Josuk |
|---|----------|--------|-------|
| Betaurrekoekin ez duela ondo ikusten. | | ✓ | ✓ |
| Betaurrekoekin okerrago ikusten duela. | | | ✓ |
| Normala dela hasieran okerrago ikustea. | ✓ | | |

3.3. Lehen eta orain

   Ekintza batzuk eskaintzen zaizkie aukeran, egunerokoak, eta biren artean erabaki dezatela zer egiten duten orain lehen baino hobeto/okerrago. Hori ebazteko, baliagarriak zaizkie 3.1 eta 3.2 ataletan ikusitako eta landutako formak eta ideiak.

  Aurreko jardueran hobeto/okerrago egiten dituzten ekintza horien zergatia zein den aztertu beharko dute elkarrekin. Aztertzen duten bitartean sor litekeen elkarrizketa-adibide bat eskaintzen zaie lagungarri. Adibide horretan, 3.1 eta 3.2 ataletan ageritako formak dituzte, edo antzekoak.

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Arratsalde on.

OPTIKAKOA.— Ui, berriz ere hemen?

JOSU.— Bai, goizean etorri naiz betaurreko berriak jasotzera, baina egunkaria irakurri nahi nuen, eta ez nuen ondo ikusten.

OPTIKAKOA.— Bueno, ohitu arte, normala da hasieran ondo ez ikustea.

JOSU.— Baina betaurrekorik gabe baino okerrago irakurtzen dut.

OPTIKAKOA.— Hori ez da posible! Nik neuk graduatu nizun ikusmena.

JUNE.— Ba gaizki graduatuta daude, edo betaurreko hauek ez dira Josurenak.

OPTIKAKOA.— Ez dakit ba. Ea, utzi begiratzen. Josu Etxarri, ezta?

JOSU.— Bai.

OPTIKAKOA.— Bai, bai. Betaurreko hauek zureak dira.

JOSU.— Orduan graduazioa da arazoa.

OPTIKAKOA.— Posible da. Zatoz nirekin, berriro egingo dugu dena.

JOSU.— Itxaron, June, segituan nator.

JUNE.— Ados. Bitartean, telefonoz hitz egingo dut.

ETENA

JUNE.- Amaia? June naiz, bai. (...) Optikan nago, Josurekin. (...) Bai, goizean etorri da betaurrekoak jasotzera, baina ez omen du ondo ikusten eta berriz ari zaizkio begiak neurtzen. Pittin bat berandu iritsiko gara, bai. Onena zu etortzea, bestela denbora mordoa galduko dugu eta. (...) Bai, iristen zarenean deitu, eta (...) Zer? Kafetegian ordu-erdi barru. Ados. (...) Aizu, sukaldeko mahaian utzi ditudan liburuak hartuko dituzu? (...) Mila esker. (...) Bai, Arantxari bueltatu nahi dizkiot eta. Bai, gero arte. Aio!

ETENA

OPTIKAKOA.— Arrazoi zenuen, gazte. Beste bezero baten datuak erabili nituen kristalak eskatzeko. Orain ondo apuntatu ditut.

JOSU.— Banengoen ba ni.

OPTIKAKOA.— Barkatu.

JOSU.— Ez da ezer. Noizko izango dituzu prest?

OPTIKAKOA.— Eman astebete, bai?

JOSU.— Ados, datorren astean hemen izango gara ba.

OPTIKAKOA.— Ondo da, agur.

JOSU.— Agur, bai.

JUNE.— Aio.